

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
think tank

GREEN RECOVERY GIPUZKOA

7. BILERAREN MEMORIA

2022/01/27

Edukia

1. 3
2. Bertaratutakoak 4
3. Ongietorria 4
4. 55
5. 99
6. 1011
7. Partekatzea121
8. Ebaluazioa eta itxiera 12
9. Eranskinak 13
   a. **Errorea! Laster-marka definitu gabe.** 13
   b. **Errorea! Laster-marka definitu gabe.**ren aurkezpena 22
   c. **Errorea! Laster-marka definitu gabe.**ren aurkezpena 29
   d. Talde dinamikako aurkezpena**Errorea! Laster-marka definitu gabe.**40
   e. Talde dinamikako emaitzak 41

ETORKIZUNA ERAIKIZ think tank

KULTURA POLITIKO BERRIAREN INGURUKO EZTABAIDA ESPAZIOA

GUNEA, 2022ko urtarrilaren 27a, 12:00-14:00

1. Programa

Ordutegia	Jardunaldiaren aurkezpena eta gida haria	Gaia	Aurkezpena/dinamizazioa
12:00 -12:10	José Ignacio Asensio	Ongietorria	José Ignacio Asensio
12:10-12:35		Natura eta biodibertsitatea Gipuzkoan	Juan Arizaga - Aranzadi
12:35-12:50		Naturarekiko konexioa eta azpiegitura berdeei buruzko komunikazioa sustatzea	Iker Zubimendi - GFA
12:50-13:55		Taldeko dinamika	TTGR-ko partaideak
13:55-14:00		Ebaluazioa eta itxiera	Mónica Pedreira eta Leire Goienetxea

2. Bertaratuak

- Mónica Pedreira
- Nerea Errasti
- David Zabala
- Dorleta Ore-Echavarria
- Mikel Orive
- Enrique Aymerich
- Enrique Ramos
- Iñigo Doria
- Izaskun Suberbiola
- Idoia Fuertes
- Javier Pradini
- Garbiñe Etxezarreta
- Jorge Segurado
- Ibone Ametzaga
- Juan Arizaga
- Leire Goienetxea
- Ainhoa Arrona
- Naia Begiristain

3. Ongietorria

Mónica Pedreirak ireki du saioa, eta partaide guztiei eskerrak eman dizkie Etorkizuna Eraikiz Think Tankeko ziklo berriaren bigarren saiora bertaratu izanagatik. Bere hitzaldia hasteko, azpimarratu egin du suspertze berderako politiken arloko eragileen arteko elkarlana. Saioa aurkezteko, urriko azken saioko gai nagusiak gogora ekarri ditu: *"Urrian lagundu egin zeniguten hausnartzen, lurraldean egin beharreko ekintzak identifikatu ahal izateko. Zuen proposamen guztiak eta planteatutako ekintzak*

aztertu ditugu, lan gune batzuk osatu ahal izateko" Mónica Pedreirak zortzi ekintza bloke handiko zerrenda bat aurkeztu du:

- Komunikazioa, hedapena eta sustapena
- Prestakuntza, hezkuntza eta kontzientziazioa
- Elkarlana eta eragile sarea
- Identifikazioa, diagnosia eta lehentasunak ezartzea
- Aurrekontua eta finantzazioa
- Araudia eta legedia
- Landa gunea
- Beste proposamen batzuk

"Zortzi bloke horiek zuen proposamenak biltzen dituzte. Gaurko saioaren abiapuntua lehen blokea izango da: Komunikazioa, hedapena eta sustapena". Mónica Pedreirak azaldu du asmoa dela komunikazioaren, hedapenaren eta sustapenaren arloan egin nahi dena garatzea, eta lurrera ekartzea. "*Biodibertsitatea babesteko lan handia egin behar dugu, eta hori guztia sentsibilizaziotik has daiteke. Horregatik dauzkagu gaur gurean Juan Arizaga eta Iker Zubimendi, gai hori sakonduko digutenak*". Gogoan izan Think Tank hausnarketa eta ekintza leku bat dela, eta asmoa dela partaideen arteko kokreazioa lortzea.

4. Natura eta biodibertsitatea Gipuzkoan

Jaun Arizagak, hitzaldia hasteko, azpimarratu du erronka bat dela Gipuzkoako biodibertsitatearen egoeraz hitz egitea 30 minutu eskasean. "*Espero dut ikuspegiarekin asmatzea, eta edozer ez bada argi edo ondo definituta gelditzen, galdetu lasai*".

Juan Arizagak azaldu du saiatu dela biodibertsitatearen inguruko Europako lege esparrua laburtzen. *"Esparru horrek ematen dizkigu lurraldeko biodibertsitatearen kontserbazioa ebaluatzeko sistemak. Tresna horien bidez, Euskadin biodibertsitateak duen egoera balora dezakegu. Gipuzkoako eskalan gutxitxo da, baina badago hobetzeko tartea. Lurraldean hautemandako erronka eta mehatxu nagusiak zabaldu eta eztabaida daitezke*".

Hitzaldia hastean, biodibertsitate eta habitat kontzeptuak definitu ditu:

- Biodibertsitatea: planetako espezie bizien multzoa. Planetan organismo bizi ugari eta askotarikoak daude. Lotuta dago ekosistemekin, espezieekin eta genetikarekin.
- Habitata: norbanako, espezie edo komunitate bat bizitzeko ezaugarri eta baldintza egokiak dituen espazioa.

Lege tresnak ere aurkeztu ditu, eta azaldu du Europak bi zuzentarau handi dituela, kontinenteko biodibertsitate monitorizatzeko eta zaintzeko:

- 92/43/EEE - Habitatak.
- 2009/147/EB Zuzentaraua - Hegaztiak.

Juan Arizagak azaltzen du Europan ibilbide handia egin dela hegaztien jarraipenean. *"Habitaten Zuzentaraua gainerako guztirako da. Bi zuzentarau horiek ematen dute lege esparrua. Habitaten eta espezieen jarraipena oso ondo definituta dago, zeintzuk diren lehentasunez kontserbatzeko habitatak eta espezieak. Halaber, zuzentarau horiek sustatzen dute esi urtean behin txosten bat egitea, habitaten eta hegaztien kontserbazio egoera aztertzeko. Hortaz, azken helburua da aipatutako taldeen kontserbazio egoera ebaluatzea".*

Azpimarratu du Estatuan badagoela Espainiako espezie mehatxatuen katalogo bat. *"Euskadin, espezie mehatxatuen Euskadiko katalogoa daukagu. Hori gaineratu egin behar zaio aurretik aipatutako tresnen multzoari*".

Halaber, esan du biodibertsitatea ez dela mugatzen naturgune babestuetara; izan ere, badaude zenbait eremu, esaterako nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzakoak, biodibertsitatean zuzenean eragiten duten arren Natura 2000 saretik kanpo daudenak. Jarraitu egin du, azaltzen hiri eremuan ere badagoela biodibertsitatea: "*hiriguneen barruko espazio berdeak diseina daitezke biodibertsitatea sustatzeko*. *Ez da gauza bera baldosaz betetako plaza bat izatea, edo espazio berde ugariko plaza handi bat. Hiria diseina daiteke biodibertsitatea sustatzeko moduan".* Azaldu du horrek lagundu egingo lukeela inguru urbanizatuetan klima aldaketaren aurka erresilienteagoak izaten.

"Biodibertsitatea elementu transbertsal bat da gure gizarteetan. Natura 2000 sarera itzulita, Gipuzkoan biotopo babestu bat daukagu, lau parke natural, kontserba

bereziko eremu gisa jasoak (KBE), 18 KBE, eta Txingudin HBBE bat dago". Jarraitu egin du, esanez eremu babestuak Gipuzkoako azaleraren % 20 direla, guztira.

Euskadiko naturaren egoerari dagokionez, 2013 eta 2018 artean egindako txostenaren datu gako batzuk aurkeztu ditu. *"Ebaluazioaren barruan Natura 2000 sarearen kontserbazio egoera neurtzen da. Batzuetan, xehakapena eskualde biogeologikoen arabera egiten da, eta ez politikoen arabera. Adibidez, gune mediterraneoaren eta atlantikoaren kontserbazioa bereiz aztertzen da. Kontserbazio egoera eskualdeka jasota dago*". Jarraitu egin du, eta esan du lehen zatia habitatetan bakarrik oinarritzen dela. Esan du bi habitat mota daudela: Batasunaren intereseko habitatak eta eskualdeko interesekoak. Azaldu du gehienak ez daudela kontserbazio egoera onean.

- % 20 egoera onean daude.
- % 38 egoera desegokian daude.
- % 16 egoera txarrean daude.
- Gainerako % 26en egoera ezezaguna da, edo ez dago datu erregistraturik.

Esan du, orobat, lurraldearen inguruan daukagun pertzepzioa ez datorrela errealitatearekin bat: "*Gipuzkoan, pentsa dezakegu baso ugari dugula, eta dena egoera paregabean dagoela. Baso azalerari dagokionez, ordea, kontserbazio egoera ertainean gaude, desegokian...".* Esan du sarbide zaileko labarrak ondo kontserbatuta daudela, baita belardiak, zelaiak eta sastrakadiak ere. Edonola ere, adierazi du dunak eta kostako habitatak egoera kaskarrean daudela, eta habitaten kontserbazio adierazleak nahikoa txarrak direla.

Basoko espezieen inguruan, lehenik eta behin gune atlantikoko hegaztiak ez diren espezieen datuak azaldu ditu, eta, gero, Euskadiko guneko hegaztienak. Hegaztiak ez direnen artean, % 33 daude egoera onean, % 68 egoera desegokian eta % 14 egoera txarrean. Gainerako % 17en daturik ez dago, edo haien inguruko oharrik ez da ezagutzen. Euskadiko hegaztiei dagokienez, % 37 ugaritzen ari dira, % 23 egonkor jarraitzen dute, eta % 18, urritzen. Gainerako % 22en egoera ez dago garbi. *"Horrekin amaituko dut Euskadirako ebaluazio ofiziala. Ez dago Gipuzkoaren ebaluazio espezifikorik. Hortaz, Gipuzkoan erronka bat dugu habitaten eta espezieen monitorizazioaren inguruan, eta beste bat espezie mehatxatuen kontserbazio egoeraren*

inguruko ezagutzari buruzkoa. Berrikusi egin behar dugu dagoena; askotan zerrendak ere zaharkituta baitaude. Garrantzitsua da jakitea zer bilakaera duten espezieen populazioek. Monitorizazioaren arloan erronka handia dugu, askotan ez baitago ezagutza eta jarraipen egokirik". Azken ohar bat egin du, esanez jarraipenak harreman zuzena duela klima aldaketarekin: "*Gipuzkoan ez daukagu klima aldaketaren adierazleen zerrendarik, dibertsitateari lotutakorik: zerrenda horren beharra dugu*".

Jarraian, Juan Arizagak adierazi du zer mehatxu handi dituen Gipuzkoako biodibertsitateak:

- Azpiegituraren garapena eta urbanizazioa, biodibertsitatea suntsitzen baitute. Esan du egiazko mehatxua dela biodibertsitatearentzat.
- Landazabala narriatzeak eta desagertzeak espazio irekietako espezieak galtzea dakar. Azaldu du landazabala desagertzen ari dela, aldaketa sozioekonomikoa tarteko: *"Baserriak etxe bihurtzen dira, eta, horregatik, lurzoruaren erabilerak aldatzen ari dira. Horrek guztiak eragiten du landazabala aldatzea, eta, beraz, kontserbazioaren erronka areagotzea. Adibidez, landazabal irekiei lotutako hegazti espezieak kontserbazio egoera negargarrian daude*".
- Basogintzako politikaz ere hitz egin du, eta esan du eukaliptoa mehatxu garbia dela biodibertsitatearen kontserbaziorako. Hala ere, gogorarazi du Gipuzkoak oso eukalipto azalera txikia duela.
- Espezie exotiko inbaditzaileen gaiari heldu dio: "*Erronka handia da horiek kontrolatzeko bidea topatzea, baita neurtzea ere zenbaterainoko inpaktua duten gure biodibertsitatean*".
- Azkenik, azaldu du klima aldaketak ere mehatxu handia dakarkiola biodibertsitateari: *"Hainbat mailatan eragingo du, eta batzuk zuzenagoak izango dira. Tenperaturak gora egiten badu, edo euri erregimena aldatzen bada, espezie batzuek, agian, ez dute inpaktu hori zuzenean jasango. Nolanahi ere, oso eragin konplexuak dira, egun batetik bestera hauteman ezin direnak. Epe luzean, baina, eragina suntsitzailea izan daiteke*".

5. Naturarekiko konexioa eta azpiegitura berdeei buruzko komunikazioa sustatzea

Iker Zubimendik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusikoak, hitza hartu du, adierazteko hizpide izango duela biodibertsitatearen eta egitura berdeen inguruko komunikazioan, sentsibilizazioan eta dibulgazioan egin dutena. Gogora ekarri du Gipuzkoan azpiegitura berdeen sare bat zedarritu zela: "*Lehen urratsa da, nahiz eta garrantzi juridikorik ez duen, balio handia duena*". Komunikazioaren arloan bi mehatxu nagusi definitu ditu: azpiegitura berdea komunikatzea eta sentsibilizazio kanpaina guztiak definitzea.

"Abiapuntu ezagutzeko, orain arte egin dugunaz hitz egin behar dizuet. Gipuzkoa Naturaldia 2015ean hasi zen programa bat da. Urte horretan bertan, horrelako programak antolatzen hasi ginen. Zerbait zabala eta askotarikoa bihurtu da, eta Gipuzkoako natura jartzen dugu erdigunean, beti". Gaineratu du Gipuzkoa Naturaldia hauen bitartez hezurmamitzen dela:

a) Gipuzkoa Naturaldia Konekta
b) Gipuzkoa Naturaldia Zinema

"Naturaldiak harreman estua izan du zinemarekin. Helburua da natura jendeari helaraztea". Gero, Gipuzkoa Naturaldia Konektan sakondu du; bi osagaiko programa bat da:

- Osagai ekologikoa, Gipuzkoako biztanleek naturarekin duten konexioa neurtzen duena.
- Baliabideak sortzea eta ugaritzea herritarren naturarekin konexio hori eduki ahal izateko, parke hurbilenetik, etxetik edo mendi babestuenaren tontorretik.

  Aurkeztutako helburuak erdiesteko, azaldu du hainbat ekimen jarri direla abian:

  - Naturbarometroa: naturarekiko konexioa neurtzen du, hala haurrena nola helduena.
  - Birkonektatzeko baliabideen katalogoa: helburua da naturarekin berriz ere konektatzea, etxetik edo naturan bertan, Gipuzkoan dagoenaren ikuspegi globala emanez.

- Birkonektatzeko paseoak: paseo errazak dira, familientzako bideratuak. Paseoetarako gida prestatu bat dago.

Iker Zubimendik azaldu du konfinamenduko lehen bi hilabeteen ondoren azterlan bat egin zutela, zeinean herritarrei galdetu zitzaien zenbateko beharra zegoen natura kontserbatzeko: *"Gehienek erantzun zuten natura kontserbatzea beharrezkoa dela. Herritarren ehuneko jakin batek dio natura 'gustuko' ez izan arren, uste duela zaindu egin behar dela. Badaude arrazoi instrumentalak edo utilitaristak, baina etikoak ere bai*". Jarraian, esan du gipuzkoar gehienen autopertzepzioa dela naturara sarri joaten direla. *"Uste dute nahikoa kontaktu estua dutela naturarekin. % 57,8k gustuko dute natura birjina. % 26,9k nahiago dute landazabalaren paisaia. Gainerako % 12ri hiriko espazio berdeak iruditzen zaizkio erakargarrien. Bitxikeria gisa, natura birjina gehien gustuko dutenak 40 urtetik beherako gizonak dira, muturreko kirolak egiten dituztenak eta hiri inguruan bizi direnak. Natura eraldatua gustukoen dutenak 60 urte inguruko gizonak dira, herri txikiagoetakoak. Azkenik, hiri espazio berdeak gogoko dituztenak 65 urte inguruko emakumeak izan ohi dira*".

Bukatzeko, gogorarazi du azpiegitura berdeen programa eta Naturaldia osagarriak direla, eta askotariko inguru naturalarekin kontaktua sustatzen dutela, azpiegitura berdeak hobeto kontserbatzeko.

6. Taldeko dinamika

Leire Goienetxeak hitza hartu du, taldeko dinamika aurkezteko. *"Gaurko ekintza izango da komunikazioari eta hedapenari erreparatzea. Horretarako, Munduko Kafea izeneko dinamika bat egingo dugu. Taldeka eseriko zarete, eta planteatutako gaien buruz solasean arituko zarete. Hamabost minutu igarotakoan, mahaiz aldatuko zarete, planteatutako beste gai batzuen inguruan aritzeko. Hiru pertsona mahaietako anfitrioiak izango dira, ez dira mugituko, eta oharrak hartuko dituzte. Dinamikak ordubete iraungo du*".

Eztabaidan, eztabaidaren gakoa izango da nola hezi, prestatu eta sentsibilizatu natura eta biodibertsitatea kontserbatzeko beharraz. Nola komunikatu Gipuzkoako azpiegitura, eta nola eman haren berri.

7. Partekatzea

Iker Zubimendik hitza hartu du, azaltzeko bere taldean azpiegitura berdeez eta horiek komunikatzeko moduaz eztabaidatu dutela. *"Ondorio batera heldu gara: kontzeptuan dago arazoa. Badirudi azpiegitura berdeen kontzeptua pertsonok sortu dugula, baina ez da egia*". Jarraitu egin du, esanez horrez gain hitz egin dutela azpiegitura berdeak hobetzeko prozesuan enpresak integratzeko beharraz, haien CO2 isurpenak konpentsatu ahal izan ditzaten.

Juan Arizagak esan du bere taldean biodibertsitatea kontserbatzeari buruz sentsibilizatzeko moduari buruzko galderez aritu direla, horretarako zer argudio zerrenda egin daitekeen ebazten. *"Gure gizartea eraginkorragoa izan daiteke. Urrats bat dago dimentsio etikotik utilitaristara. Espezieek ematen dituzten zerbitzuei errepara diezaiekegu, gure osasunean duten inpaktuari, eta, handik, plano etikoagora igaro. Oreka bilatu beharrean gaude. Argudio utilitarista gehiegi erabiltzeak zentzugabekeriara garamatza: ezin dira espezieak zaindu natura gehiegi instrumentalizatuta. Funtzio utilitaristatik harago, espezieak zaindu behar dira. Kito*". Hizketan jarraitu du, azaltzen argudio utilitarioez gain badaudela beste batzuk pragmatikoagoak, adibidez, zerbitzu ekosistemikoenak: "*espezieek zerbitzu oso zerbitzu sorta zabala ematen dute. Aipatu da lurraldeko espezieen adibideak bilatu behar direla (ardiak, onddoak, perretxikoak eta abar), gure gizarteak ondo uler ditzakeen adibideak jarri ahal izateko".* Xede hartzaileei dagokienez, aipatu du eskolak direla ideia nagusia. "*Haurrek helduak ere hezi ditzakete*". Esan du administrazio publikoak baimentzen dituela, azken finean, biodibertsitatea suntsitzen dituen arrazoi nagusiak. Horregatik, "*sentsibilizazio eta hezkuntza ariketa handia egin behar dugu. Politiken gardentasunean eta trazabilitatean sakontzeko behar handia dago*".

Nerea Errastik, eztabaidarako abiapuntu gisa hartu dituen galderen inguruan, adierazi du ondorioztatu dela herritarren kontzientziazioa ez dela nahikoa. *"Gure gizarteak azaleko kontzientziazioa du, ekintza espezifikorik ez dakarrena. Jokabide aldatzea eskatzen zaigunean, ez dugu egiten. Gauzak oso agerikoak direnean bakarrik bereizten ditugu, adibidez, ondo edo gaizki kontserbatutako espazio bat*". Azaldu du kontua ez dela soilik biodibertsitatearena, ekosistema ere oso elementu garrantzitsua

baita. "*Sistema guztiek ekosistema moduan batera funtzionatzea da kudeatu beharreko gauzarik garrantzitsuena*".

8. Ebaluazioa eta itxiera

Saioa amaitu aurretik, Leire Goienetxeak hitza hartu du, partaide guztiei eskerrak emateko. Halaber, eskatu die ebaluazio orriak betetzeko, eta hurrengo saiora arte agurtu ditu.

9. Eranskinak

a. 8. lan dokumentua

THINK TANK

SUSPERTZE BERDEAREN INGURUKO EZTABAIDA ESPAZIOA

8. lan dokumentua

2. saioa, II. zikloa

2022ko urtarrilaren 27a

Aurreko dokumentuetan aipatu denez, Green Recovery Think Tankeko bigarren zikloaren xedea da topagune bat sortzea, klima aldaketaz hausnartzeko suspertze berdearen ikuspegitik, Gipuzkoan arlo horretan oraindik dauzkagun etorkizuneko erronkei heltzeko eta horien inguruan hausnartzeko.

Hori dela eta, eztabaida talde horren lana bideratuko da **bide orri bat egitera, hausnarketa eta eztabaida bateratutik sortutako ekintza zehatzekin, Ingurumen Departamentuko politiketan zuzenean eragingo dutenak, ekonomiaren deskarbonizazioa eta klima neutraltasuna lortzeko 2050erako. Hori lortzeko, orain eta etorkizunean** batera lan egin beharko da, parte hartuz eta adostasunez Gipuzkoako eragile, herritar eta sektore guztiekin.

Horretarako, eta lehen kontaktu gisa, azterketa eta mapa kontzeptuala egin ziren, Green Dealen palanka politika nagusiekin lotuta klima Gipuzkoan martxan jarritako ekimen nagusiak identifikatzeko, klima aldaketaren aurka borrokatzekoak.

Horien guztien artean, ikusi zen Gipuzkoan jorratu beharreko estrategia nagusiak zirela **Farm to Fork** estrategiarekin, **biodibertsitatearekin** eta **azpiegitura berdeekin**, **zero kutsadurarekin**, **industria jasangarriarekin (nola lortu: zero defect/zero waste/zero impact factory)** eta **energia garbiarekin** lotutakoak.

Estrategia horiek, taldean hautatuak eta adostutakoak, bi hilean behin landuko dira, hemendik eta 2023rako saioetan, bide orri hori lortzeko, lurraldeari aukera emango diona politika egokiak txertatzeko, klima neutraltasuna eta ekonomia deskarbonizatzea lortzeko, biodibertsitatearen eta azpiegitura berdeen inguruko estrategia abiapuntu gisa hartuz.

BIODIBERTSITATEA ETA AZPIEGITURA BERDEAK

Biodibertsitatearen Estrategia Green Dealen zutabeetako bat da, eta haren asmoa da Europako biodibertsitaea suspertze bidean jartzea hemendik eta 2030era, pertsonen, klimaren eta planetaren onbeharrez, gizarteak hainbat mehatxuri aurre egiteko duen erresilientzia bilatuz, adibidez, klima aldaketaren eraginei, baso suteei edo elikaduraren segurtasunik ezari kontra egiteko. Horrenbestez, besteak beste, estrategia horren inguruan hasi da hausnarketa Green Recovery Think Tankean.

Aurre saioaren xede nagusia biodibertsitatearen inguruko estrategia nazionala ezagutzea izan zen, eta hainbat galderari buruz eztabaidatzea:

Zergatik uste dugu garrantzitsua dela biodibertsitatea, eta nola laguntzen du klima aldaketaren borrokan?

BEA eta MITECOri entzun ondoren, nola uste dugu dagoela Gipuzkoa arlo horretan?

Zer sentsazio duzue?

Galdera horiei eztabaida formatuan erantzun zitzaion, eta honako ekarpen hauek egin ziren.



Honako hauek ere eztabaidaren parte izan ziren, eta brainstorming formatuan jorratu ziren:

Nola indartu beharko genuke arlo hori Gipuzkoan? Proposamenak, ideiak, sinergiak, ekintzak eta abar

Zer ekarpen egin dezaket nik, pertsona gisa eta prozesu horretan engaiatutako eragile moduan?

BRAIN STORMING

¿Cómo deberíamos intensificar esta área en Gipuzkoa?
Propuestas, ideas, acciones, sinergias,

Hemos clasificado las respuestas en 8 áreas:

1. **Comunicación, difusión y promoción**
2. **Formación, educación y concienciación**
3. **Colaboraciones y red de agentes**
4. **Identificación diagnósticos y priorización**
5. **Presupuesto e inversión**
6. **Normativas y legislación**
7. **Medio rural**
8. **Otras propuestas**

1 COMUNICACIÓN, DIFUSIÓN Y PROMOCIÓN

Difundir, promocionar y comunicar:
- Diagnóstico de infraestructuras verdes de Gipuzkoa
- Temas y dinámicas tratadas en estas sesiones – procesos de deliberación
- Riqueza natural de nuestro territorio
- Beneficios y ventajas de la biodiversidad

Hacer partícipe a la población y ciudadanía mediante:
- Creación de canales de escucha y aportación
- Creación de experiencias locales en torno a la biodiversidad y las infraestructuras verdes para la población

Sensibilización mediante socialización:
- Convertir la información en comunicación dirigida
- Utilizar los canales de comunicación municipales

2 FORMACIÓN, EDUCACIÓN Y CONCIENCIACIÓN

Formación ambiental en todos los ámbitos: empresa, ciudadanía, instituciones, etc
Fomentar el compromiso voluntario
Ámbito académico:
- Implicar al alumnado en **casos reales**
- Proponer al alumnado trabajar en la mejora de las Infraestructuras Verdes
- Proponer **trabajos concretos con encaje académico** (TFM, TFG o prácticas) relacionados con la biodiversidad y las infraestructuras verdes.

3 COLABORACIONES Y RED DE AGENTES

Fomentar:
- Implicación de los agentes en programas de concienciación y educación
- Colaboración entre Administraciones Públicas
- Intercambio de conocimientos entre territorios
- Grupos de trabajo multidisciplinares para desarrollos
- Participación de agentes en función de los eslabones de la cadena

Crear: Red de colaboración con agentes locales que sirvan de influenciadores en su área local: interacción directa con la población local para fomentar su concienciación
Trasladar: proyectos a empresas que encajen en las líneas estratégicas de las Infraestructuras Verdes


4 IDENTIFICACIÓN, DIAGNÓSTICO Y PRIORIZACIÓN

Identificar:
- Migraciones previstas a causa del cambio climático y dar prioridad a los corredores que lo habilitan o mejorar el mismo.
- Cadena de valor de la biodiversidad

Priorizar: ámbitos de actuación

5 PRESUPUESTOS Y FINANCICIÓN

Incrementar presupuestos públicos
Atraer fondos privados para proyectos concretos



Saioan parte hartu duten eragile guztien ekarpenak aztertu eta sintetizatu ondoren, erabaki da ahalegina zentratzea saioan gehien aipatuenetako eta errepikatu den gai batean: komunikazioa eta kontzientziazioa.

BIODIBERTSITATEAREN ETA AZPIEGITURA BERDEEN KOMUNIKAZIOARI, KONTZIENTZIAZIOARI ETA SENTSIBILIZAZIOARI BURUZKO SAIOAREN LABURPENA, EKARPENAK ETA ONDORIOAK

Green Recovery Think Tankaren 2022ko urtarrilaren 27ko saioan, eztabaidagai gakoetako bat izan da nola hezi, prestatu eta sentsibilizatu natura eta biodibertsitatea kontserbatzeko beharrari buruz, eta nola komunikatu eta helarazi Gipuzkoako azpiegitura berdea. Partaideek honako galdera hauen inguruan hausnartu dute, talde dinamikan:

World Café talde dinamikak

- Biodibertsitatea
    - Nahikoa al da gipuzkoarrek biodibertsitatearen kontserbazioaren inguruan duten kontzientziazioa?
    - Eta ezagutza? Badakigu bereizten ondo kontserbatutako espazio bat eta gaizki kontserbatutako bat?
    - Naturarekiko kontaktuak benetan sortzen al du biodibertsitatea kontserbatzeko beharrari buruzko kontzientzia?
    - Zergatik kontserbatu? Arrazoi etikoak edo instrumentalak –zerbitzu ekosistemikoak– gailendu behar dira biodibertsitatea kontserbatzearen inguruko sentsibilizazioan?
    - Nola helarazi biodibertsitatea kontserbatzea (natura) beharrezkoa dela guk geuk irauteko?
    - Zer gehiago egin dezakegu natura eta biodibertsitatea kontserbatzeko beharraz sentsibilizatzeko?
- **GABS - Komunikazioa eta zabalkundea**
    - Azpiegitura kontzeptua ez da komunikatzen erraza. Nola helaraz daiteke zer den azpiegitura berde bat gaiaren inguruko ezagutza teknikorik gabeko jendeari?
    - Zer eragile engaiatu behar dira Gipuzkoako Azpiegitura Berdeen Sarea zedarritzen?
    - Nola helarazi Gipuzkoako Azpiegitura Berdeen Sarearen proposamena herritarrei?

Jarraian azaltzen diren mapek jasotzen dituzte talde dinamikako partaideek biodibertsitatearen eta komunikazio eta zabalkundearen inguruan emandako erantzunak.

BIODIVERSIDAD

Comunicación, concienciación y sensibilización - Mesas 1 + 2

1

GRADO DE CONCIENCIACIÓN

ALTO grado de concienciación PERO NO suficiente. Falta ACCIÓN. Concienciación SUPERFICIAL.

- Hay que conocer la importancia de la biodiversidad para concienciar
- *Debate: ¿Es la concienciación lo más importante para fomentar la conservación de la naturaleza?*

2

GRADO DE CONOCIMIENTO (sobre espacios bien/mal conservados)

NO hay conocimiento REAL / NO sabemos diferenciar

- Los criterios e indicadores son muy técnicos. Puede que por ello la ciudadanía no sepa valorar en profundidad
- Creemos que la ciudadanía no tiene por qué saber esas cosas

3

¿CONTACTO CON NATURALEZA = CONCIENCIACIÓN?

S

I

Aunque depende de:

- La información previa que tengamos
- El uso que hacemos del entorno (ejemplos de: domingueros, deportistas, etc).



4

RAZONES ÉTICAS vs RAZONES INSTRUMENTALES

¿Cuál hay que priorizar para sensibilizar?

Priorizar los INSTRUMENTAL

Instrumentales

- Calidad de vida/salud
- Servicios ecosistémicos / sostenibilidad
- Equilibrio / resiliencia
- Identidad y valor cultural
- Adaptación y mitigación

Éticas

- Otros modelos sociales unidos a la naturaleza
- Mostrar la belleza de la naturaleza
- Acto de respeto = una sociedad mejor
- Vista global y de conjunto (no estamos solos en el planeta)

EVITAR: *"Si no sirve de nada, para qué conservar"*

Analizar Concepto: ONE HEALTH

ONE HEALTH

5

Cómo transmitir la IMPORTANCIA de la BIODIVERSIDAD para nuestra supervivencia

PROPUESTAS

- Buscar ejemplos ligados al territorio: abejas/hongos/pesca...
- Mostrar la función de especies y hábitat
- Apelar a la parte útil/práctica
- No olvidar la escala planetaria

6

Qué hacer para SENSIBILIZAR

PROPUESTAS/PONER EL FOCO EN:

- Colegios
- Políticos y técnicos de administración
- Mayores de 65 años: casas de cultura, hogares del jubilado
- Transparencia y trazabilidad:
  - A dónde va y cómo se gestiona lo que se recibe
  - Qué se consigue con esas políticas
- Impacto de acciones cotidianas
- Empresas especializadas en gestión agrícola y ganadera

RED INFRAESTRUCTURAS VERDES DE GIPUZKOA

1

Cómo transmitir la RIVG a gente sin conocimiento/población general

PROPUESTAS

- Relacionando las RIVG con los servicios ecosistémicos
- Problemas semánticos:
- Da la sensación de que las IV son algo creado por el hombre
  - Emplear conceptos alternativos para comunicar (naturaleza, biodiversidad, espacios naturales...)
  - Hacer pedagodía para que se entienda
- Poner de manifiesto que es una red/visión de conjunto
- Usar ejemplos concretos
- Organizar visitas y explicar "in situ" lo que son

2

AGENTES IMPLICADOS - ¿Quiénes?

PROPUESTAS

- Propietarios de terrenos privados (80%) Asociaciones
- de custodia del territorio, ecologistas y estudio de la naturaleza
- Agentes de Diputación
- Entidades con proyectos que afecten negativamente a las IV (tren)
- Conjunto de la sociedad (ellos tienen que decir qué son IV y que no)
- Sociedad que gestiona el medio rural (atraer)
- Empresas en la gestión activa de las IV

EMPRESAS: Obligaciones y programas para **compensar la huella de carbono = oportunidad para implicar a las empresas** en la restauración de la IV.

4

¿Cómo hacer llegar la propuesta de RIVG a la población?

PROPUESTAS

- Ponerla en **valor**
- No hay necesidad de transmitirla. Poner prioridad en que hay que conservar la naturaleza y dejar el concepto de Infraestructura Verde en un plano técnico
- Transmitir lo que implica para su municipio o su entorno cercano
- Visitar las Infraestructuras Verdes
- Intercambio entre pueblos, visitando las Infraestructuras Verdes de cada uno
- Comunicar el concepto en diferentes sitios: parketxes, centros de visitantes, otros puntos de información sobre naturaleza
- Enfocar como una **OPORTUNIDAD** y no una **LIMITACIÓN**



b. Juan Arizagaren aurkezpena

aranzadi zientzia elkartea | SOCIEDAD DE CIENCIAS SCIENCE SOCIETY SOCIÉTÉ DE SCIENCES

Biodibertsitatearen egoera Gipuzkoan

Juan Arizaga
Aranzadi Zientzia Elkartea
jarizaga@aranzadi.eus

Has gaitezen definitzen...

BIODIBERTSITATEA:

Gure planetako espezie bizien multzoa.

Gure planetako organismo bizien aldakortasuna:

Ekosistemak -> Espezieak -> Geneak

HABITATA:

Norbanako, espezie edo komunitate bat bizitzeko ezaugarri eta baldintza egokiak dituen espazioa.

Legezko tresnak

- 92/43/EEE Zuzentaraua - Habitatak.
- 2009/147/EB Zuzentaraua - Hegaztiak.

Honetara behartzen dute (besteak beste):

- Eranskinetan zerrendatutako habitaten eta espezieen jarraipena.
- Kontserbazio egoerari buruzko sei urtean behineko txostena (ebaluatu).
- Babestu, kontserbatu: NS2000 (KBE, HBBE).

Legezko tresnak

- Estatua: 139/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa (Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa).
- Euskadi: 2013ko ekainaren 18ko Agindua (Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa).

Baina... Biodibertsitatea gehiago da:


- Biodibertsitatea landa eremua – nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basogintzaren kudeaketaren garrantzia.
- Biodibertsitatea hiri eremuan.
- Biodibertsitatea, gure gizarteetako elementu TRANSBERTSALA.

Gipuzkoako eremu babestuak

- Biotopo babestua: 1 (Flysch Zumaia-Deba).
- Parke naturalak: 4 (gaur egun KBE-etan sartutakoak).
- KBE: 18
- HBBE: 1 (Txingudi).

~% 20 Gipuzkoako azalera

Gipuzkoako Natura Sareko habitatak




Naturaren egoera Euskadin 2013-2018

- NS2000 ebaluazioetan oinarritutako txostena.
- Oro har, eskualde ATLANTIKOrako **habitatak**:

	FV (ona)	U1 (ezegokia)	U2 (txarra)	XX
BIH	15	26	11	3
EIH	4	10	4	22
Guztira	% 20	% 38	% 16	% 26

